

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

Tolosako Udaletxean, 2007ko irailaren 25ean, arratsaldeko 7:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohizko osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Jokin Bildarratz Sorron, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 25 de septiembre de 2007, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Jokin Bildarratz Sorron, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Jokin Bildarratz Sorron

Bertaratutako zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal
Jose Andueza Oyarzabal
Ainhoa Etxeberria Aranburu
Jokin Azkue Arrastoa
Yurre Peñagaricano Zubeldia
Jon Aldazabal Etxeberria
Aitzol Arocena Zufiria

Jose Agustin Arrieta Eguiguren
Onintza Lasa Arteaga
Andoni Iturzaeta Arbillaga
Oscar Hugo Renedo Nieto
Jose Luis Vilanova Alonso
Enrique Torquemada Sanchez
Angel Bernardo Yañez Ares

Ez bertaratutakoak:

Jose Miguel Gomez Elosegui

Behin-behineko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Eguneko gai zerrenda

1.- Ondorengo aktak onartzea:

2007ko uztailaren 20ko Aparteko
Osoko Bilkurakoa.

2007ko irailaren 4eko Osoko
Bilkurakoa.

Orden del día

1.- Aprobación de las siguientes actas:

Sesión Extraordinaria de 20 de julio de 2007.

Sesión Ordinaria de 4 de septiembre de 2007

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

- | | |
|--|---|
| 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: | 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía: |
| 2007ko maiatzaren 31tik irailaren 19ra bitartekoak (1000/2007-1615/2007) | Del 31 de mayo al 19 de septiembre de 2007 (1000/2007- 1615/2007). |
| 3.- 1426/07 alkatetza dekretoren berri ematea. | 3.- Dar cuenta del decreto de alcaldía nº 1426/07 |
| 4.- Batzorde informatiboen maiztasuna eta ordutegiaren berri ematea. | 4.- Dar cuenta de la periodicidad y horario de celebración de las Comisiones Informativas. |
| 5.- E.Z. 1 "Laskoraingo zabaldua" eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa espedientearen behin betiko onarpenaren berri ematea. | 5.- Dar cuenta de la aprobación definitiva del expediente de modificación de las NN.SS de Tolosa, referida al área RE.1 "Ensanche Laskorain". |
| 6.-Tolosako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, EAZ.5 "Euskal Herria Plaza" eremuari dagoikona. Behin behineko onespina. | 6.- Aprobación provisional de la modificación puntual de las NN.SS de planeamiento de Tolosa, referida al área RC.5 "Euskal Herria Plaza". |
| 7.-Construcciones Aitz-Ondo, SA-k, sustatzen duen E.Z "Beotibar kalearen luzapena" eremuko barne erreformarako Egitasmo Berezia aldatzeko dokumentua behin betiko izaeraz onestea. | 7.- Aprobación definitiva del documento de modificación del Plan Especial de reforma interior del área RE.5 "Prolongación Beotibar", promovido por Construcciones Aitz-Ondo,SA. |
| 8.- Udal plangintzako aholku batzordea arautzen duen reglamendua behin betiko onartzea. | 8.- Aprobación definitiva del reglamento regulador del Consejo asesor de planeamiento. |
| 9.- Tolosako Beotibar pilotalekuko kioskoan obrak egin eta ustiatzeko baldintza plegua onartzea. | 9.- Aprobación del Pliego de condiciones para la realización de obras y explotación del kiosco del Frontón Beotibar, de Tolosa. |
| 10.- Galde-erreguak. | 10.- Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio Zarauzko Udaletxeari eta bereziki bertako Ertzaintzari bere babesa eskainiz, komisariak jasan duen erasoagatik. Udalbatzak bere elkartasuna adierazten du.

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, mostrando su solidaridad con el Ayuntamiento de Zarauz y en particular con la Ertzaintza de dicha localidad por el ataque sufrido en la Comisaría. A dicha muestra se une la Corporación.

1.- Ondorengo aktak onartzea:

2007ko uztailaren 20ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.

1.- Aprobación de las siguientes actas:

Sesión Extraordinaria de 20 de julio de 2007.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

2007ko irailaren 4eko Osoko Bilkurakoa.

Sesión Ordinaria de 4 de septiembre de 2007

Ondoren, izenburuan aipatutako aktak, ahobatez, **onartu** dira.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2007ko maiatzaren 31tik irailaren 19ra bitartekoak (1000/2007-1615/2007)

Del 31 de mayo al 19 de septiembre de 2007 (1000/2007- 1615/2007).

Alkatetzak, 2007ko maiatzaren 31tik irailaren 19ra bitartean (1000/2007-1615/2007)egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei, eta Udalbaskideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 1426/07 alkatetza dekretuaren berri ematea. 3.- Dar cuenta del decreto de alcaldía nº 1426/07.

Behin-behineko Idazkariak 1426/2007 dekretuaren berri eman du. Honek honela dio:

“Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 21.3. artikulua eta Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuko 43 artikulua ematen dizkidaten ahalmenez baliatuta, eta gai hau erregulatzen duten erregimen lokaleko gainerako lege xedapenen arabera,

“En el uso de las facultades que me confiere el art. 21.3 de la Ley de Régimen Local 7/85, de 2 de abril, el art. 43 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/86, de 28 de noviembre, y a la vista del resto de disposiciones legales de régimen local que regulan la materia,

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehena: Eskuordetza berezia ematea Angel Yañez Ares zinegotziari, espazio publikoetako lur gaineko eta azpiko aparkaleku zerbitzuari dagokionez, arlo horretan bultzatzeko, ikuskatzeko eta proposamenak egiteko ahalmenarekin, hirugarren bat uki dezakeen ekintza administratiborik erabakitzea izan ezik.

Primero: Conferir delegación especial al concejal Angel Yañez Ares relativa al Servicio de aparcamientos en superficie y subterráneos en espacios públicos, con facultades de impulsar, inspeccionar y proponer en la materia delegada, sin incluir la de resolver mediante actos administrativos que afecten a terceros.

Bigarrena: Eskuordetza berezi honen berri ematea datorren Ohizko Bilkuran.

Segundo: Dar cuenta de la presente delegación especial al Pleno en la primera sesión que celebre.

Hirugarrena: Ebazpena aipatu zinegotziari jakinaraztea eta bidezko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Dekretu honek

Tercero: Notificar la resolución al concejal interesado y publicar el oportuno anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de su efectividad desde el día

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

*bere eragina sinatu zen hurrengo egunaz siguiente al de la firma del presente Decreto.”
geroztik duelarik.”*

Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

4.- Batzorde informatiboen maiztasuna eta ordutegiaren berri ematea. 4.- Dar cuenta de la periodicidad y horario de celebración de las Comisiones Informativas.

Batzorde informatiboen maiztasuna eta ordutegiaren berri ematen zaie Udalbatzara etorri diren zinegotziei:

- **TOLOSA 2015: AGENDA 21, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA INGURUMENA**
TOLOSA 2015: Agenda 21, Participación ciudadana y Medio Ambiente.
Astelehenetan, arratsaldeko 7:00tan , hamabostaldiro / Los Lunes, a las 19:00 horas, cada 15 días
- **HIRIGINTZA, OBRA, AUZOAK ETA HERRI-MANTENIMENDUA**
Urbanismo, Obras, Barrios y Mantenimiento.
Ostiraletan, goizeko 8:00retan, astero / Los viernes, a las 8:00 horas, cada semana
- **GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ORGANIZAZIOA**
Recursos Humanos y Organización Municipal
Asteazkenetan, goizeko 8:00tan, hamabostaldiro planteatu da/ Los miércoles, a las 8:00 horas, y planteamiento de hacer Comisión cada 15 días
- **KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA, HAZIENDA ETA INFORMAZIO GIZARTEA**
Comisión Especial de Cuentas, Hacienda y Sociedad de la Información
Egun finkorik ez, erregularitasunik ez / No tiene día fijo, ni regularidad.
- **TURISMOA ETA FERIAK**
Turismo y Ferias
Erabakitzeko / Sin decidir.
- **GARAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA**
Desarrollo económico y comercio

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

Ostegunetan, goizeko 8:00retan, hamabostaldiro / Los jueves, a la 8:00, cada 15 días

- **OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**
Sanidad y Servicios Sociales

Astelehenetan, arratsaldeko 13:30tan, hamabostaldiro / Los lunes, a las 13:30, cada 15 días.

- **KULTURA ETA FESTAK**
Cultura y Fiestas

Asteartetan, arratsaldeko 17:30tan, hamabostaldiro / Los martes, a las 17:30, cada 15 días

- **GAZTERIA**
Juventud

Osteguna, atsaldeko 7:00tan, hamabostaldiro / Jueves, 19:00 horas, cada 15 días.

- **KIROLAK**
Deportes

Astelehenetan, eguerdiko 13:00tan, hilabete edo 15 aldiro / Los lunes, a las 13:00, cada 15 días o cada mes.

- **HEZKUNTZA ETA EUSKARA**
Euskera y Educación.

Asteazkenetan, arratsaldeko 5:30tan, hamabostaldiro / Los miércoles, a las 17:30, cada 15 días.

- **UDALTZAINGOA ETA HIRITARREN ARRETA**
Policia Municipal y Atención Ciudadana

Erabakitzeko / Sin decidir (Udaltzainburua etorritakoan finkatuko da).

- **BERDINTASUNA**

Erabakitzeko / Sin decidir (Zerbitzua finkatutakoan erabakiko da).

- **ERRETENGIBEL, ALDE ZAHARRAREN ERABERRITZEA ETA GARAPENA**
Erretengibel, Rehabilitación y desarrollo del Casco Viejo

2007.09.25

Ostegunetan, arratsaldeko 8:00tan, 2 hilabetez behin gutxienez/ Los jueves, a las 20:00 h, cada 2 meses como mínimo.

Batzarkideek jakinaren gainean geratu dira.

5.- E.Z. 1 “Laskoraingo zabaldura” eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa espedientearen behin betiko onarpenaren berri ematea.

5.- Dar cuenta de la aprobación definitiva del expediente de modificación de las NN.SS de Tolosa, referida al área RE.1 “Ensanche Laskorain”.

Honako hau jakinarazi zaio Udalbatzari: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2007ko abuztuaren 2ko batzarraldian, zera erabaki zuela: Behin betiko onartzea Tolosako “Laskorain Zabalgunea” RE.1 areari dagokion Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa espediente.

Se da cuenta al Pleno de que el Consejo de Diputados de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa, en su reunión de 2 de agosto de 2007, acordó aprobar definitivamente el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Tolosa relativa al área RE.1 “Ensanche Laskorain” (Cine Iparragirre).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

6.-Tolosako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, EAZ.5 “Euskal Herria Plaza” eremuari dagoikona. Behin behineko onespina.

6.- Aprobación provisional de la modificación puntual de las NN.SS de planeamiento de Tolosa, referida al área RC.5 “Euskal Herria Plaza”.

Udalbatzak, 2007ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion honako proiektua honi: Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala, EAZ.5 “Euskal Herria Plaza” eremuari dagokionez.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 5 de julio de 2007, acordó aprobar inicialmente la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referida al área RC.5 “Plaza Euskal Herria”.

Espediente jendaurrean egon da hilabeteko epean. Horretarako beharrezko argitarapenak egin dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan (Berria, Diario Vasco eta Hitza), eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

El expediente ha sido sometido a trámite de información pública por término de un mes, mediante la publicación del anuncio correspondientes en el B.O. de Gipuzkoa y en la prensa diaria (Berria, Diario Vasco, e Hitza), sin que se haya presentado alegación alguna.

Bestalde, hasierako onespeneko erabakia jakinarazi zaie Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, Fomento Ministeritzari eta ADIF delakoari.

Por otra parte, se ha notificado este acuerdo de aprobación inicial a la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, al Ministerio de Fomento y a ADIF.

Sustapen Ministerioak (Trenbideetako Zuzendaritza Orokorrak) adierazi duenez, epe labur eta ertainerako ez dauka planifikatuta inolako jarduketarik, Arau Subsidiarioen

El Ministerio de Fomento (Dirección General de Ferrocarriles) ha informado que no tiene planificada ninguna actuación a corto o medio plazo que pueda interferir con esta modificación de

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

aldaketa honi eragin liezaiokeenik, eta, horrenbestez, bidalitako dokumentazioaren arabera, ez dirudi inongo eragozpenik dagoenik haren tramitazioarekin jarraitzeko.

Guzti honen aurrean, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 90 eta 91 artikuluek aurreikusitakoaren arabera eta Hirigintza Batzordeak hartutako aldeko diktamena ikusirik, Udaltzaren, aho batez, Udaltzaren gehiengo quorum absolutoa duelarik,

Normas Subsidiarias, y por ello informa que, de acuerdo con la documentación enviada, no parece haber inconveniente para continuar con su tramitación.

Ante todo lo expuesto, de conformidad con lo previsto por los artículos. 90 y 91 de la Ley de Suelo y Urbanismo del País Vasco y visto el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, lo que supone la mayoría absoluta legal de los miembros que componen la Corporación,

ERABAKI DU:

Lehen.-Behin-behineko onartzea EAZ.5 "Euskal Herria Plaza" eremuko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuaren proiektuari.

Bigarren.-Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igortzea.

Hirugarren.- Erabakiaren berri Hirigintza departamentuari ematea.

ACUERDA:

Primero.-Aprobar con carácter provisional el Proyecto de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referido al área RC.5 "Plaza Euskal Herria".

Segundo.-Remitir el expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Tercero.- Dar cuenta de este acuerdo al departamento de Urbanismo.

7.-Construcciones Aitz-Ondo, SA-k, sustatzen duen E.Z "Beotibar kalearen luzapena" eremuko barne erreformarako Egitasmo Berezia aldatzeko dokumentua behin betiko izaeraz onestea.

Gobernu Batzarrak, 2007ko ekainaren 4an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Hasierako onarpena ematea Construcciones Aitz-Ondo, SA delakoak sustatzen duen E.Z.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuko Barne Erreformarako Egitasmo Berezia Aldatzeko dokumentua, Juan Jose Gurrutxaga Chacón arkitektoak idatzi, eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2007ko martxoaren 29an bisaturikoa.

Espedientea jendaurrean egon da hogei egunez. Horretarako beharrezko argitarapenak egin dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

7.- Aprobación definitiva del documento de modificación del Plan Especial de reforma interior del área RE.5 "Prolongación Beotibar", promovido por Construcciones Aitz-Ondo,SA.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 4 de junio de 2007, acordó aprobar, con carácter inicial, el Documento de modificación del Plan Especial de Reforma Interior del área RE.5 "Prolongación Beotibar", promovido por Construcciones Aitz-Ondo, S.A., y redactado por el Arquitecto D. Juan José Gurrutxaga Chacón, con fecha 29 de marzo de 2007.

El expediente ha sido sometido a trámite de información pública, por término de veinte días, mediante la publicación del anuncio

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

(2007ko ekainaren 19ko 120 zka.) eta egunkarietan (Berria: 2007ko ekainaren 16an; Diario Vasco: 2007ko ekainaren 19an; eta Hitzza: 2007ko ekainaren 16an). Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

correspondiente en el B.O. de Gipuzkoa (n.º 120, de 19 de junio de 2007) y en la prensa diaria (Berria: 16 de junio de 2007; Diario Vasco: 19 de junio de 2007; e Hitzza: 16 de junio de 2007). Durante en el referido plazo no se ha presentado alegación alguna.

Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 97.1 eta 95.3 artikuluek aurreikusitakoaren arabera, eta Hirigintza Batzordeak jaulkitako aldeko diktamena ikusirik, Udalbatzak, aho batez, Udalbatzaren gehiengo quorum absolutoa duelarik,

De conformidad con lo previsto por los artículos 97.1 y 95.3 de la Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco, y el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, lo que supone la mayoría absoluta legal de los miembros que componen la Corporación,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

Lehen.-Behin betiko izaeraz onestea Construcciones Aitz-Ondo, SA delakoak sustatzen duen EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuko Barne Erreformarako Egitasmo Berezia Aldatzeko dokumentua, Juan Jose Gurrutxaga Chacón arkitektoak idatzi, eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2007ko martxoaren 29an bisaturikoa.

Primero.-Aprobar, con carácter definitivo, el Documento de modificación del Plan Especial de Reforma Interior del área RE.5 "Prolongación Beotibar", promovido por Construcciones Aitz-Ondo, S.A., y redactado por el Arquitecto D. Juan José Gurrutxaga Chacón, con fecha 29 de marzo de 2007.

Bigarren.-Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiaren 8.4.a) artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Legeko 81.2.a) artikuluen arabera, planeamendu dokumentu honen behin betiko onespenak automatikoki aldaraziko du kalifikazio juridikoa, aldatzen den Planean jasotzen diren jabari eta erabilera publikoko bide espazioena (Inpernu kalea eta Rondilla kalearekin komunikatzen duen kaletxoaren zati bat).

Segundo.-Señalar que, conforme a lo dispuesto por los art. 8.4.a) del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales y 81.2.a) de la Ley de Bases de Régimen Local, la aprobación definitiva de este documento de planeamiento producirá la automática alteración de la calificación jurídica de los espacios viarios de dominio y uso público establecido en el Plan que se modifica (Inpernu kalea y parte del callejón de comunicación con Rondilla kalea).

Hirugarren.- Erabaki honen berri Hirigintza departamentuari ematea.

Tercero.- Dar cuenta de este acuerdo al Departamento de Urbanismo.

8.- Udal plangintzako aholku batzordea arautzen duen regramendua behin betiko onartzea.

8.-Aprobación definitiva del reglamento regulador del Consejo asesor de planeamiento.

Udalbatzak, 2007ko martxoaren 27ko ohizko bilkuran, hasiera onespena eman zion Tolosako Hirigintza Plangintzako Aholku

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de marzo de 2007, acordó aprobar, con carácter inicial, el Reglamento del

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

Batzordearen Arautegiari.

Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico de Tolosa.

Dokumentua jendaurrean jarrita egon da, hogeita hamar egunez, bidezko iragarkia argitara emanda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (74 zk., 2007ko apirilaren 17koa) eta eguneroko prentsan (Diario Vascon 2007ko maiatzaren 31n).

El documento ha sido sometido a información pública mediante la publicación del anuncio correspondiente en el B.O. de Gipuzkoa (n.º74, de 17 de abril de 2007) y en la prensa diaria (Diario Vasco de 31 de mayo de 2007) por el plazo de treinta días.

Informazio publikoko epealdian bi alegazio aurkeztu dira:

Durante el periodo de información pública se han presentado dos alegaciones:

1.- Agenda 21, Hiri Partaidetza eta Ingurumen Batzordeko lehendakariak aurkeztua 2007ko apirilaren 25ean (4.759 zk.dun sarrera erregistroa)

1.- La presentada el 25 de abril de 2007 (registro de entrada n.º 4759) por el Presidente de la Comisión de Agenda 21, Participación Ciudadana y Medio Ambiente, y

2.- Tolosako Alde Zaharra-Dendak elkarteak 2007ko maiatzaren 4an aurkeztua (4.977 zenbakidun sarrera erregistroa).

2.- La presentada el 4 de mayo de 2007 por Alde Zaharra-Dendak Tolosa (registro de entrada n.º 4977).

Azterturik aurkeztutako alegazioak, Hirigintza departamentuko diktamenta, Udalbatzak, aho batez,

Estudiadas las alegaciones presentadas, visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

Lehena.- Ontzat hartzea Agenda 21, Hiri Partaidetza eta Ingurumen Batzordeko lehendakariak eta Tolosako Alde Zaharra-Dendak elkarteak aurkeztutako alegazioak.

Primero.- Estimar las alegaciones presentadas tanto por el Presidente de la Comisión de Agenda 21, Participación Ciudadana y Medio Ambiente, como por Alde Zaharra-Dendak Tolosa.

Bigarrena.- Aldatzea, ondorioz, Tolosako Plangintzaren Aholku Kontseiluaren Arautegiko II. Kapituluko (Udal Plangintzako Aholku Batzordearen osaketa) 6.1 artikulua, hurrengo kide hauek sartuz Batzordean:

Segundo.- Modificar, en consecuencia, el art. 6.1 del Capítulo II (Composición del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal) del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento de Tolosa, incorporándose al Consejo los siguientes miembros:

- Eskola Agenda 21eko ordezkari bat.
- Erretengibel S.A.ren ordezkari bat.

- 1 representante de Agenda Escolar 21.
- 1 representante de Erretengibel, S.A.

Hirugarren.- Behin-betiko onarpena ematea Erreglamenduari G.A.Ofizialean osorik argitaratuz.

Tercero.- Aprobar definitivamente el Reglamento mencionado, procediendo a su publicación íntegra en el B.O.G.

Laugarren.- Erabaki honen berri Eskola Agenda 21eri, Erretengibel, Sari eta Hirigintza departamentuari.

Cuarto.- Dar cuenta de este acuerdo a la Comisión de Agenda Escolar 21, a Erretengibel, SA, y al departamento de Urbanismo.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2007.09.25

9.-Tolosako Beotibar pilotalekuko kioskoan obrak egin eta ustiatzeko baldintza plegua onartzea.

Behin-behineko idazkariak baldintza pleguen berri ematen du.

Hortaz, ikusirik Hirigintza Batzordeak jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

9.- Aprobación del Pliego de condiciones para la realización de obras y explotación del kiosco del Frontón Beotibar, de Tolosa.

La Secretaria Accidental expone el contenido del Pliego de condiciones.

Consecuentemente, visto el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

Lehena.-Udal zerbitzu teknikoak egindako Baldintza-Agiria onartzea.

Bigarrena.-Beotibar pilotalekuko kioskoan obrak egin eta ustiatzeko kontzesioa emateko kontratazio espedientea onartzea.

Hirugarrena.-Adjudikazio prozedura irekitzea eta, horretarako, adierazitako kontzesioaren adjudikaziorako lehiaketa deialdia egitea.

Cuarto.- Erabaki honen berri Hirigintza departamentuari ematea.

Primero.-Aprobar el Pliego de Condiciones elaborado por los servicios técnicos municipales.

Segundo.-Aprobar el expediente de contratación para el otorgamiento de la concesión para la realización de obras y explotación del kiosco del frontón Beotibar.

Tercero.-Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación, y, a tal efecto, convocar concurso para la adjudicación de la concesión señalada.

Cuarto.- Dar cuenta de este acuerdo al departamento de Urbanismo.

10.- Galde-erreguak.

Angel Yañez Aresek, PPko zinegotziak, planteatu du Pleno hasieran korporazioak Zarauzko Udalari eskainitako babesak jakinaraztea. Udalbatzak, aho batez, bere adostasuna azaltzen du.

Besterik gabe, gaueko zortzi t'erditan bilera bukatutzat eman da.

10.- Ruegos y preguntas.

Angel Yañez Ares, concejal del PP, plantea comunicar al Ayuntamiento de Zarauz la solidaridad que el Pleno ha mostrado al comienzo de la Sesión. El Pleno muestra, por unanimidad, su conformidad.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y media de la noche, se da por finalizada la sesión.

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA